

EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN

AKTA

2016ko martxoaren 1a

Gasteizen, 2016ko martxoaren 1eko 17:00ak direnean, Eusko Legebiltzarraren egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordearen lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta Batzordearen kideak diren Andres Maria Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., Jose Ramon Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta Maria Carmen Agoues Mendizabal and.. Batzordearen idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre and. ere bileran egon da. Honako erabakiak hartu dituzte:

ERABAKIAK

BAKARRA.- ERABAKI PROPOSAMENA 1/2015, 2/2015, 3/2015 ETA 4/2015 ESKUMEN AUZI METATUETAN, ZEINTZUK, HURRENEZ HURREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, ARABAKO BATZAR NAGUSIEK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK AURKEZTU BAITZITUZTEN “EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAKETARI” BURUZKO LEGE PROPOSAMENAREN AURKA

Aho batez onartu da Kepa Bilbao Gaubeka jaunak, txostengilea den aldetik, proposatu duen erabakiaren eskema.

Kepa Bilbao Gaubeka jaunak txostengile guztiek egindako sintesi-agiriak bateratuko ditu.

Andres Urrutia Badiola jaunak, Carmen Agoues Mendizabal andreak eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jaunak txostenen zirriborroak aurkeztu dituzte interpretazio eremu orokorrari dagozkion arloei buruz honako hauekin lotuta:

“forutasunaren muin ukiezina”, Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako en artean eskumen arautzaileak mugatzea eta gobernuarteko elkarlana.

Erabaki da hurrengo saioan eremu orokorraren laugarren arazoari buruzko txostenaren zirriborroa aztertuko dela eta, egokia bada, Kepa Bilbao Gaubeka jaunak aurkeztu behar duen aurrekari en proposamena onartzea.

Azpimarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, 18:30 direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko apirilaren 5ean, 17etan, egingo baita Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.